



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko maiatzaren 22a

56. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00084. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aparteko laguntza zuzenen lerro bat gaitu dezan, gutxienez ere 10 milioi euroko zuzkidura izanen duena, energiaren eta nekazaritza-intsumoen (nekazaritzako gasolioa eta ongarririk) kostuaren igoera konpentsatzeko. Irene Royo Ortín andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-26/MOC-00085. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez Cunchillosen kudeaketa gaitzesten baitu, osasun-sistema publikoaren behar bezalako funtzionamendua bermatzeko eta egungo osasun-krisiari erantzun bat emateko duen ezgaitasuna dela-eta. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 11-26/MOC-00086. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita proba diagnostikoen itxaron-zerrendak argitaratzeko legezko betebeharra konpli dezan. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (5. or.).
- 11-26/MOC-00087. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sexu-jazarpenera eta/edo sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzeko eta esku hartzeko Protokoloa alda dezan. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (7. or.).
- 11-26/MOC-00088. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2026ko abenduaren 31 baino lehen lizita ditzan Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan aberaste bidegabeko egoeran dauden kontratuak. Ángel Ansa Echeagaray jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-25/MOC-00166. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen baitira gabapentinoideak despreskribatzeko estrategia integral bat ezar dezaten. Osasun Batzordean izapidetzea (9. or.).
- 11-26/MOC-00069. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita energia elektrikoa sortzeko autokontsumo kolektiboa gauzatzeko izapidetzearen gaineko neurriak har ditzan. Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Batzordean izapidetzea (9. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-26/PES-00134. Galdera, Hondius gurutzaontzian izandako hantavirus-agerraldiari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (10. or.).
- 11-26/PES-00135. Galdera, 11-26/PEI-00018 zenbakiko espedienteari emandako erantzunari atxikitako dokumentuari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (11. or.).
- 11-26/PES-00136. Galdera, lan-mutualitatearentzako ekarpenei dagozkien berandutze-interesak ordaintzeari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (11. or.).
- 11-26/PES-00137. Galdera, osasun publikoari buruzko protokoloari eta MV Hondius gurutzaontzian izandako agerraldiaren ondoriozko balizko kutsatzeak arakatzeko jarduketei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (12. or.).
- 11-26/PES-00138. Galdera, Hondius gurutzaontzian zihoazen nafarren gaineko zenbait auziri buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (13. or.).
- 11-26/PES-00139. Galdera, Nafarroako Ubidearen etorkizuneko erabilerengatiko aurrerakinak sortutako interesak direla-eta 28,268 milioi euro ordaintzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- 11-26/PES-00140. Galdera, Sesmarko eta Arroizko biometano-planen egungo administrazio-egoerari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (14. or.).
- 11-26/PES-00141. Galdera, Testa Residencialek alokairura bideratuta dauden etxebizitzak saltzeko asmoari buruzkoa, jatorrian babes publikoarekin bultzatutako etxebizitza babestuak izan baitziren. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (15. or.).
- 11-26/PES-00142. Galdera, Foruzaingoak Donejakue Bidean egiten duen zaintza indartzeari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (16. or.).
- 11-26/PES-00143. Galdera, Jurramendi 76ri buruzko Memoriaren Tokiko paneleko testuak aldatzeko eskariari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- 11-26/PES-00144. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuak C eta D mailetako lanbide-karrerak direla-eta aitortutako zorra ordaintzeko aurreikusten duen egutegiari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (18. or.).
- 11-26/PES-00145. Galdera, Tuterako lohien planta zentralizatuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (19. or.).
- 11-26/PES-00146. Galdera, Erriberriko paradorearen sarrerako panelari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).
- 11-26/PES-00147. Galdera, Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legeari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (21. or.).
- 11-26/PES-00148. Galdera, Nafarbide enpresa publikoaren zuzendari kudeatzailearen ordainsariei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (21. or.).
- 11-26/PES-00149. Galdera, Ingurumen Zuzendaritza Nagusian izandako kargu-uzte eta dimisioei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (22. or.).
- 11-26/PES-00150. Galdera, Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusia izangaien behin betiko zerrendatik kanpo uzteari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (22. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 62/2026 ebazpena, maiatzaren 20koa, zeinaren bidez 11-26/PES-00107 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Nafarroako Gobernuari helarazten baitzaio idatziz erantzun dezan (23. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00084. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita aparteko laguntza zuzenen lerro bat gaitu dezan, gutxienez ere 10 milioi euroko zuzkidura izanen duena, energiaren eta nekazaritza-intsumoen (nekazaritzako gasolioa eta ongarriak) kostuaren igoera konpentsatzeko

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita aparteko laguntza zuzenen lerro bat gaitu dezan, gutxienez ere 10 milioi euroko zuzkidura izanen duena, energiaren eta nekazaritza-intsumoen (nekazaritzako gasolioa eta ongarriak) kostuaren igoera konpentsatzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordea izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioari atxikita dagoen foru-parlamentari Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako nekazaritza-sektorea ekoizpen-kostuen igoera ezohiko eta iraunkorra jasaten ari da, bereziki energian —elektrizitatea eta nekazari-

tzako gasolioa— eta ongarri mineraletan. Garestitze hori egiturazko faktoreen ondorio da, hala nola energiarekiko eta inportatutako intsumoekiko mendekotasun handia, bai eta lehengaien eta energiaren nazioarteko merkatuak tentsionatu dituzten inguruabar geopolitiko berrien ondorio ere. Gainkostu horiek eragin zuzena dute nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategien errentagarritasunean, eta eragin berezia dute labore estentsiboetan, ureztapenetan, abeltzaintza intentsiboan eta, oro har, energia-kontsumo handiko jardueretan, halako moduan non arriskuan jartzen baita ustiategi askoren bideragarritasun ekonomikoa, bereziki ustiategi familiar eta profesionalena.

Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak hainbat neurri hartu dituzte ondorio horiek arintzeko; besteak beste, nekazaritzako gasolioaren kontsumoari lotutako laguntzak, hektareako konpentsazioak ongarrien kostua handitzeko, energia-fiskalitatearen aldi baterako murrizketak, zerga-geroratzeak eta energia-efizientziako eta -trantsizioko inbertsioetarako dirulaguntzak. Jar-duera horiek egoera partzialki arintzen lagundu badute ere, une honetan mugatuak eta eskasak dira.

Testuinguru horretan, zenbait autonomia-erki-degoren hautua izan da dauden neurriak osatzea ezohiko laguntza zuzenak emanaz ustiategi bakoitzeko diru-kopuru finko batekin; laguntza horiek taxutu dira gutxieneko laguntza komun bat bermatzeko eta likidezia-injekzio azkar bat errazteko administrazio-prozedura sinplifikatuen bidez. Ikuspuntu tekniko batetik, tresna-mota hori zalua izateagatik nabarmentzen da, ustiategien finantza-ahalmenean berehalako eragina izateagatik eta jada eskuragarri dauden nekazaritza-erregistroen bidez artikulatzen erraza izateagatik.

Nafarroan aldi baterako aparteko laguntza zuzen bat ezarri ahal izateak, indarrean dauden neurriekin bateragarria izan dena, ahalbidetuko luke kostuen presio handia duten kanpainetan likidezia hobetzea, kontsumoari edo inbertsioari lotutako laguntzak osatzea eta administrazio-kargak murriztea; eta ziurgabetasun handiko egoera batean nekazaritza-jarduera abandonatzea prebenitzen lagunduko luke bidenabar.

Ikuspegi juridikotik eta aurrekontuaren ikuspegi-tik, ezohiko dirulaguntzei buruzko foru-araudian sar liteke horrelako neurri bat, eta aukera emanen luke nekazaritzako ustiategi edo profesional bakoitzeko gutxieneko zenbateko bat ezartzeko, aurrekontu-erabilgarritasunaren araberrako muga global bat ezartzeko eta, kasua bada, irizpide objektibo eta egiaztagarrien araberrako bigarren tarte bat artikulatzeko. Jarduketa horren azken helburua litzateke Nafarroako nekazaritzako ekoizpen-sarearen jarraitutasunari eustea, landa-ingurune-ko enpleguari eustea eta sektorearen ekoizpen-ahalmena bermatzea aparteko kostu-koiuntura baten aurrean; Foru Komunitatearen egonkortasun ekonomiko eta sozialarentzat lagungarri izanen litzateke, beraz.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki-proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Gobernua premiatzen da aparteko laguntza zuzenen lerro bat gaitu dezan, gutxienez ere 10 milioi euroko zuzkidura izan dena, energiaren eta nekazaritza-intsumoen (nekazaritzako gasolioa eta ongarriak) kostuaren igoera konpentsatzeko. Lerroak, gutxienez, honako ezau-garriak izanen litzuzke:

- 1.000 euroko gutxieneko zenbateko bermatua nekazari edo abeltzain profesional bakoitzeko.
- Zenbateko gehigarri aldakor bat, egiaz jasandako gainkostuen justifikazio objektiboaren araberrakoa, neurri osoarentzat 10 milioi euroko gehieneko muga globalera iritsi arte.
- Laguntza emateko prozedura arin eta sinplifikatu bat, gutxieneko zenbatekoa berehala ordaintzeko aukera emanen duena, banan-banan justifikatu beharrik gabe, eta, kasua bada, tarte aldakorra emateko beharrezkoak diren kontrol-mekanismoak ezarriko dituena.
- Eremu subjektibo zabal bat, onuradun gisa nekazariak, abeltzainak, txanpinoi-kultibadoreak eta erlezain profesionalak hartuko dituena.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 10ean

Foru-parlamentaria: Irene Royo Ortín

11-26/MOC-00085. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez Cunchillosen kudeaketa gaitzesten baitu, osasun-sistema publikoaren behar bezalako funtzionamendua bermatzeko eta egungo osasun-krisiari erantzun bat emateko duen ezgaitasuna dela-eta

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez Cunchillosen kudeaketa gaitzesten baitu, osasun-sistema publikoaren behar bezalako funtzionamendua bermatzeko eta

egungo osasun-krisiari erantzun bat emateko duen ezgaitasuna dela-eta.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioren eledun Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ekimen hau aurkezten du:

Zioen azalpena

Nafarroako osasungintza publikoa gero eta okerrago dago, eta horrek eragina du herritarrei ematen zaien arretaren kalitatean zein profesionalen lan-baldintzetan.

Azken hilabeteotan egiaztatu da itxaron-zerrendak etengabe luzatzen ari direla, egiturazko plazak betetzeko zailtasunak daudela eta asistentzia-presioa gero eta handiagoa dela, osasun-sistema osoa nabarmen tentsionatzeraino.

Horri gehitzen zaio Osasun Departamentuaren eta profesional sanitarioen arteko gatazka ireki dela, eta zenbait neurri hartu izan dira, hala nola mobilizazioak, greba-egunak eta ezo-hiko jarduera egiteari uko egitea. Egoera horrek erakusten du haserre handia dagoela, elkarriketa eraginkorrik ez dagoelako, plangintzarik ez dagoelako eta departamentuak behar adina neurririk hartu ez duelako.

Erizainen kolektiboak ere behin eta berriz adierazi du kezkatuta dagoela asistentzia-gainkargarengatik, aitorten profesionalik ezagatik eta antolaketa-neurri egokirik ez izateagatik; krisia, beraz, ez da puntuala, ez eta kolektibo bakar batera mugatua ere, egiturazkoa eta orokortua baizik.

Osasun Departamentuaren kudeaketak argi eta garbi erakutsi du ez dela nahikoa Nafarroako osasun-sistemaren egungo arazoei aurre egiteko. Lidergo faltak, profesionalekin akordioak lortzeko ezgaitasunak eta estrategia eraginkorrik ez izateak egoera larriagotzen lagundu dute.

Era berean, agerikoa da egungo Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez Cunchillosek ez duela gaitasunik osasungintza-sistemaren egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko, hala nola biztanleriaren zahartzeari, profesionalen eskasiari edo asistentzia-eskariaren hazkundeari.

Horrek guztiak berekin ekarri du orokorra izatea haren kudeaketarekiko konfiantza-galera, bai osasungintza-arloko profesionalen aldetik, bai herritarren aldetik; halako moduan non osasungintza-sistemako sektore asko baitaude argi eta garbi haren jardunaren aurka.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez Cunchillosen kudeaketa gaitzesten du, osasungintza-sistema publikoaren behar bezalako funtzionamendua bermatzeko eta egungo osasun-krisiari erantzun bat emateko duen ezgaitasuna dela-eta.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 9an

Foru-parlamentaria: Javier García Jiménez

11-26/MOC-00086. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita proba diagnostikoen itxaron-zerrendak argitaratzeko legezko betebeharra konpli dezan

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita proba diagnostikoen itxaron-zerrendak argitaratzeko legezko betebeharra konpli dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioak

Osasun-laguntza espezializatuko itxaronaldien bermei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legeak jasotzen du nafarrek eskubidea dutela osasun-sistema publikoaren jarduera asistentzialari buruzko informazio publikoa, eskuragarria eta periodikoa izateko.

Zehazki, lege horren 7. artikulua honako hau ezartzen du espresuki: "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hileroko informazioa emanen du Nafarroako Gobernuaren web orriaren bitartez, eta herritar guztien eskura jarritako beste hedabide ofizial batzuen bitartez, prozedura kirurgikoetarako, kanpoko kontsultetarako eta proba diagnostikoetarako Nafarroako osasun-sistema publikoko zentro eta zerbitzu bakoitzean dagoen gaixo-kopuruari eta itxaronaldien batez bestekoari buruz".

Hala ere, lege-agindua argia izan arren, Nafarroako Gobernuak gaur egun ez du argitaratzen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren proba diagnostikoei buruzko informaziorik, eta publikitate aktiboa kirurgiako eta lehen kontsultetako itxaron-zerrendetara mugatzen du.

Egoera horrek 14/2008 Foru Legearen 7. artikuluan espresuki xedatzen dena urratzen du, eta mugatu egiten du herritarrek osasun-sistema publikoaren funtzionamenduari buruzko osasun-

informazio osoa eta gardena eskuratzeko duten eskubidea.

Gardentasuna eta kontu-ematea administrazio publiko ororen funtsezko printzipioak dira, eta bereziki garrantzitsuak dira osasungintza-eremuan, non informazio publiko egiazkoa eta eguneratua eskuratzek herritarren konfiantza indartzea, kontrola erraztea eta Nafarroako osasun-sistemaren asistentzia-errealitatea hobeto ezagutzea ahalbidetzen baitu.

Horregatik guztiagatik, bidezkoa da Nafarroako Gobernuak premiatzea egiaz bete ditzan informazio publikoaren arloari dagokionez 14/2008 Foru Legean jasotzen diren betebeharrak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren proba diagnostikoei buruzko datuak aldizka argitaratuta.

Hori dela-eta, erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legearen 7. artikuluan xedatutakoa bete dezan eta, horrenbestez, hileroko eman dezan informazioa, Nafarroako Gobernuaren webgunearen nahiz herritarren eskura dauden beste komunikabide ofizial batzuen bidez, paziente-kopuruari eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren proba diagnostikoetako batez besteko itxaronaldiari buruz Nafarroako osasun-sistemako zentro eta zerbitzu bakoitzean.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 13an

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/MOC-00087. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia- tzen baita Sexu-jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta esku hartzeko Protokoloa alda dezan

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Sexu-jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta esku hartzeko Protokoloa alda dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioak

Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzuak badu sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta esku hartzeko protokolo bat, lan-ingurune seguruak, indarkeriarik gabekoak eta langileen duintasuna errespetatzen dutenak, bermatzeko.

Protokolo hori bat dator indarrean dagoen arau-esparruarekin (Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Efectiborako 3/2007 Lege Organikoa, Sexu-askatasunaren berme integralerako 10/2022 Lege Organikoa, LANEren 190. hitzarmena eta 247/2024 Errege Dekretua, Estatuko Administrazio

Orokorrean aplikatu beharreko protokoloa ezartzen duena).

Hala ere, azken hilabeteotan O-NOZeko langileek salaketa publikoak jarri ondoren, eta indarrean dagoen protokoloaren funtzionamendu praktikoa aztertu ondoren, agerian geratu da egiturazko mugak daudela, eta muga horiek arriskuan jar dezaketela protokoloaren benetako eraginkortasuna, hala nola irizpide objektiborik, egiaztagarririk edo estandarizaturik ez egotea ikerketa-batzorde bat irekitzea erakartzeko, edo ustezko erasotzaileak biktimekiko nagusitasun hierarkikoa duen kasuetako jarduerarako.

Hala, UPNren ustez, beharrezkoa da aldaketak egitea indarrean dagoen protokoloan, haren eraginkortasuna, irisgarritasuna, inpartzialtasuna eta sinesgarritasuna indartzeko, eta biktimek benetako babes eraginkorra bermatzeko.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du Nafarroako Osasun Zerbitzuan sexu-jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta esku hartzeko protokoloa alda dezan, haren eraginkortasuna, independentzia eta bermeak indartzeko, kasuak izapidetzean nagusitasun-harremana duen edozein pertsona baztertzeko ezarritako, babes-neurri espezifikoak eta automatikoak arautuz erasotzailea hierarkian goragokoa denean, ikerketa-batzordea irekitzeko irizpide objektibo eta egiaztagarriak definituz –nahitaez aktibatzea barne, larritasun bereziko edo botere-asimetriako kasuetan–, hartutako erabakien motibazioa eta berrikuspen independenterako aukera bermatuz, bai eta errepresalien aurkako babes-neurriak eta biktimei prozedura osoan zehar laguntza integrala emateko neurriak indartuz ere.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/MOC-00088. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita 2026ko abenduaren 31 baino lehen lizita ditzan Unibersitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan aberaste bidegabeko egoeran dauden kontratuak

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita 2026ko abenduaren 31 baino lehen lizita ditzan Unibersitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan aberaste bidegabeko egoeran dauden kontratuak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Unibersitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita 2026ko abenduaren 31 baino lehen lizita ditzan Unibersitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan bidegabeko aberastearen egoeran dauden kontratuak.

Zioen azalpena

Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko 2024ko ekitaldiko fiskalizazio-txostenak jasotzen du, kontratueuskaririk gabe ordaindutako prestazioei buruzko datuen atalean, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak 10 kontratu zeuzkala egoera horretan, halako moduan non 2024an 15.073.278 euroko gastua ordaindu baitzen eta kontratuak bukatu zirenetik (luzapenak barne) 2024ko abenduaren 31ra arte 47.845.945 euroko gastua metatu baitzen. Hortaz, departamentu hori zen gasturik handiena metatu zuena Nafarroako Gobernuan.

Txostenak jasotzen dituen 10 kontratuak Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusiari dagozkio, eta kalte ekonomikoa dakarkie diru-kutxa publikoei. Horietako zazpi 2021eko urtarriaren 1etik bidegabeko aberastearen egoeran daude.

Kontratu horiek garrantzi handia dute Foru Administrazio Publikoan, batzuk Osasun Departamentuko sistema garrantzitsuetarako izaki (errezeta elektronikoa, erizaintzako historia klinikoa...).

Kontratu horien egoera lehenbailehen zuzendu behar da, sortzen ari diren desoreka ekonomikoak zuzentzeko eta denboran ez luzatzeko.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

2026ko abenduaren 31 baino lehen lizita ditzan Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan bidegabeko aberastearen egoeran dauden kontratuak.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-25/MOC-00166. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen baitira gabapentinoideak despreskribatzeko estrategia integral bat ezar dezaten

OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen baitira gabapentinoideak despreskribatzeko estrategia

integral bat ezar dezaten. Mozioa 2025eko abenduaren 19ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00069. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita energia elektrikoa sortzeko autokontsumo kolektiboa gauzatzeko izapidetzearen gaineko neurriak har ditzan

INDUSTRIAKO ETA ENPRESEN TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA DIGITALEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Batzordean izapidetu dadin Miguel Garrido Sola jaunak eta Oihan Mendo Goñi jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita energia elektri-

koa sortzeko autokontsumo kolektiboa gauzatzeko izapidetzearen gaineko neurriak har ditzan. Mozioa 2026ko apirilaren 24ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-26/PES-00134. Galdera, Hondius gurutzantzian izandako hantavirus-agerraldiari buruzkoa*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Hondius gurutzantzian izandako hantavirus-agerraldiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hondius gurutzantzian agertutako hantavirus agerraldiari dagokionez, eta gurutzantzi horretan zortzi nafarrek bidaiatu zutela jakinda:

1. Noiz jakin zuen ofizialki Nafarroako Gobernuak Hondius gurutzantziarekin lotutako hantavirus-agerraldiaren eraginpean potentzialki egon ahal izan diren herritar nafarrak daudela, eta zein jarduketa zehatz aktibatu ziren une horretatik aurrera?

2. Nafarroan bizi diren zenbat pertsona identifikatu dira potentzialki eraginpean egon ahal izan diren pertsona gisa, zer datatan jarri ziren osasun-agintariak haiekin harremanetan, eta zer jarraipen epidemiologiko edo kliniko egin zaie harrezkero?

3. Osasuna zaintzeko eta kontrolatzeko zer protokolo espezifiko aplikatu zaizkie potentzialki eraginpean egon ahal izan diren pertsona horiei, barne hartuta proba diagnostikoak, sintomen monitorizazioa, prebentzio-gomendioak edo isolamendu-neurriak, eta zenbat denboraz mantenduko dira jarduketa horiek?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/PES-00135. Galdera, 11-26/PEI-00018 zenbakiko espedienteari emandako erantzunari atxikitako dokumentuari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, 11-26/PEI-00018 zenbakiko espedienteari emandako erantzunari atxikitako dokumentuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-25/PEI-00018ren erantzunari erantsitako dokumentuari dagokionez:

1. Dokumentu horren hiru sinatzaileek ez dute sinadura digitala erabiltzen, derrigorrezkoa dena Nafarroako administrazio publikoaren edozein dokumentu ofizialetan; zergatik da hori?

2. Dokumentu horretan, "Osasunbidea" izena eta haren logoa ez dira OSN-O-ren ofizialak; zergatik da hori?

3. Lehenengo sinaduraren azpian dagoen karguan, eskaneatutako testu zati bat eta idatzizko beste testu-zati bat konbinatzen dira; zergatik da hori?

4. Dokumentu hori posta elektronikoz bidali ez bazen eta eskura eman bazen, nork entregatu zuen, eta nori eta nola entregatu zion?

5. Ziurtatzen ahal duzu dokumentua erreal dela eta ez dagoela manipulatu?

6. Noiz sortu zen dokumentu hori?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/PES-00136. Galdera, lan-mutualitatearentzako ekarpenei dagozkien berandutze-interesak ordaintzeari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, lan-mutualitatearentzako ekarpenei dagozkien berandutze-interesak ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

VOXeko kide den Talde Mistoko foru parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun dakion:

Abuztuaren 19ko 188/2002 Foru Dekretuaren 14. artikulua babesean Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak jasotako erretiro-pentsioetan lan-mutualismoari egindako ekarpena itzultzeko izapideari dagokionez.

2025ean, Nafarroako Gobernuak 2019ko ekitaldiko zerga-aitorpenak berrikusi zituen, eta 2024ko azarora arteko legezko interesen itzulketa sartu zen, egun horretan jaso baitzen zor zena.

2025ean egindako 2024ko ekitaldiko aitorpenean, 2020, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldiei dagozkie zenbatekoak kendu ziren, baina EZ ziren likidatu legezkiokkeen berandutze-interesak.

Kontuan hartuta 2019ko ekitaldiko likidazioa berrikustean berandutze-interesak ordaindu direla, zergatik ez da gauza bera egin hurrengo ekitaldietan?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-26/PES-00137. Galdera, osasun publikoari buruzko protokoloari eta MV Hondius gurutzaontzian izandako agerraldiaren ondoriozko balizko kutsatzeak arakatzeko jarduketei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, osasun publikoari buruzko protokoloari eta MV Hondius gurutzaontzian izandako agerraldiaren ondoriozko balizko kutsatzeak arakatzeko jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

VOXeko kide den Talde Mistoko foru parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako bidaiariak zeudela jakinda, eta hantabirusari eta Nafarroako kutsadura posiblei dago kienez, osasun publikoko zer protokolori ari zaio jarraitzen Nafarroako Gobernua, eta zer jarduketa ari da egiten MV Hondius gurutzaontziko agerraldiaren ondorioz izaten ahal diren kutsatzeen arrastoari jarraitzeko?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-26/PES-00138. Galdera, Hondius gurutzaontzian zihoazen nafarren gaineko zenbait auziri buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Hondius gurutzaontzian zihoazen nafarren gaineko zenbait auziri buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Hondiusen bidaiatzen ari ziren nafarrei buruz hainbat komunikabidek argitaratutako informazioa ikusita:

1. Nazioarteko osasun-alerta eragin duen hantabirus agerraldia izan duen Hondius gurutzaontzian zihoazen bederatzi nafarrak zein egoeratan daude?
2. Kontakturik izan al zuten kutsaturen batekin?
3. Erantzuna baiezkoa bada, hasi al dira jarraipen-protokolo bat gauzatzeko jarduerak, haien osasun-egoeraren bilakaera baloratzeko eta gerta daitezkeen kutsatzeak prebenitzeko?
4. Espainiako Gobernua harremanetan jarri al da Osasun Departamentuarekin, protokolo horiek ezartzeko eta kontaktuen trazabilitatea kudeatzeko?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Foru-parlamentaria: Irene Royo Ortín

11-26/PES-00139. Galdera, Nafarroako Ubidearen etorkizuneko erabilerengatiko aurrerakinak sortutako interesak direla-eta 28,268 milioi euro ordaintzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen etorkizuneko erabilerengatiko aurrerakinak sortutako interesak direla-eta 28,268 milioi euro ordaintzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, Lurralde Kohesiorako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

2013ko abuztuaren 28an, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Ubidea eraikitzeke elkarren arteko lankidetzaz hitzarmena gaurkotzeko hirugarren akordioa izenpetu zuten. Bosgarren klausulan, Nafarroako Gobernuak adierazten du konpromisoa hartzen duela 2013tik 2026ra bitarte diru-aurrerakin bat egiteko Canal de Navarra SA sozietateari, "Nafarroako Ubidearen etorkizuneko erabilerak" kontzepturako, aurreikusirik, halaber, Canal de Navarra SA sozietateak aurrerakin hori itzuliko diola Nafarroako Gobernuari 2027. urtetik 2040. urtera bitarte, urtean ehuneko hiruko interes sorrarazita, eta zorra lehenago amortizatu ahal izanen duela funtsik egonez gero.

Maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran, parlamentari sinatzaileak 2013ko akordioaren arabera aurreratutako 77 milioien itzulketan Canasak Nafarroari ordaindu beharko lizkiokeen interesen balizko galerari buruz galdetu zion kontseilariari. Kontseilariak adierazi zuen ez zirela galduko, eta 2027tik 2040ra bitartean itzultzeko hitzartutako 28,268 milioi euroak ordainduko zirela, joan den apirilaren 21ean adostu ziren baldintzen aldaketatik eratorritakoez gain.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

2013tik 2026ra bitartean Nafarroak Canasari egindako aurrerakinagatik interes gisa sortutako 28,268 milioi euroak noiz itzuliko dira?

Canasak zer epetan itzuliko du interes gisa sortutako zenbatekoa?

Noiz egingen da interes horien lehen ordainketa?

Metatu egingen al zaizkie hitzarmen berriaren ondorioz sortzen direnei, zeinaren arabera interesak ordainduko baitira aurrerakinaren baldintzen aldaketa onartzen den ekitalditik aurrera? Eta epe horietan ere ordainduko al dira?

Edo, egiazkoagoa al da Nafarroak 28,268 milioi euro horiek galduko dituela eta sortutako interes horiek aurrerakinaren baldintzak aldatu ondoren sortzen diren interes berriekin ordeztuko direla?

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-26/PES-00140. Galdera, Sesmako eta Arroizko biometano-planen egungo administrazio-egoerari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Sesmako eta Arroizko biometano-planen egungo administrazio-egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Sesmako eta Arroizko biometano-planten egungo administrazio-egoerari buruz, ingurumen-baimen integratuak baliogabetu ondoren.

Departamentuak Sesman eta Arroitzen proiektuta zeuden biometano-instalazioei dagozkien ingurumen-baimen integratuak baliogabetzea eta atzeraragina erabaki berri du, lurralde-oinarriaren eta digestato-kudeaketarako planaren gaineko akatsen ondorioz. Ebazpen horien ondoren, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

– Ea Sesma eta Arroizko planten sustatzaile diren enpresek jadanik aurkeztu duten Departamentuak atzemandako akatsak konpontzeko dokumentaziorik.

Hala baldin bada:

- Zein egunetan aurkeztu zuten?
- Zer egoeratan dago dokumentazio horren analisia?
- Ea, lehen begiratu batean, Departamentuaren ustez posible den detektatutako akatsak konpontzea.

• Departamentuak bilerarik, harreman teknikorik edo komunikaziorik izan al du sustapen-enpresekin, ingurumen-baimen integratuak baliogabetu ondoren? Hala bada, zer helbururekin?

• Departamentuaren ustez, detektatutako akatsak konpondu ondoren proiektuek administrazio-izapidetzearekin jarrai ote dezaketen eta berriz ere ingurumen-baimen integratua lor ote dezaketen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 7an

Foru-parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-26/PES-00141. Galdera, Testa Residencialek alokairura bideratuta dauden etxebizitzak saltzeko asmoari buruzkoa, jatorrian babes publikoarekin bultzatutako etxebizitza babestuak izan baitziren

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Testa Residencialek alokairura bideratuta dauden etxebizitzak saltzeko asmoari buruzkoa, jatorrian babes publikoarekin bultzatutako etxebizitza babestuak izan baitziren.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Argitaratu diren informazioen arabera, Blackstone funtsak parte hartzen duen Testa Residencialek gogoan darabil salgai jartzea gaur egun Nafarroan alokairura bideratuta dauden eta jatorrian laguntza publikoarekin bultzatutako etxebizitza babestuak ziren etxebizitzak. Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten dira, idatziz erantzun dakien:

Ba al daki Nafarroako Gobernuak Testa Residencial enpresak asmoa duela Nafarroan alokairu-erregimenean dituen etxebizitzak zati bat salerosketamerkatara ateratzeko?

Izan al du Nafarroako Gobernuak, zuzenean edo Nasuvinsaren bidez, kontakturik, bilerarik edo komunikaziorik Testa Residencialeko arduradunekin gai horren inguruan?

Ba al dago gaur egun negoziaziorik zabalik Nafarroako Gobernuaren edo Nasuvinsaren eta Testa Residencial enpresaren artean, etxebizitza horiek saltzea saihesteko edo alokairuko parke gisa jarrai dezatela bermatzeko?

Ba al du Nafarroako Gobernuak tresna juridikorik etxebizitza horien salmenta espekulatiboa eragotzi, mugatu edo zailtzeko?

Baloratu al du Nafarroako Gobernuak lehentasunez erosteko formularen bat erabiltzea edo etxebizitza horiek alokairu eskuragarriko programa publikoetan sartzea?

Testa Residencial enpresaren jabetzako zenbat etxebizitzari eraginen lioke salmenta-eragiketa horrek Nafarroan?

Eraginpeko etxebizitzaren kokalekua zein da, udal-erri, auzo eta bizitegi-sustapenen arabera banakaturik?

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du eragiketa horrek etxebizitza-eskurapenean eta Nafarroako alokairu-merkatuaren tentsioan izanen lukeen eraginari buruz?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Foru-parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-26/PES-00142. Galdera, Foruzaingoak Donejakue Bidean egiten duen zaintza indartzeari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Foruzaingoak Donejakue Bidean egiten duen zaintza indartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilari Inmaculada Jurío Macaya andreak, idatziz erantzun diezaion:

Duela gutxi jakin dugu Foruzaingoak Nafarroan Donejakue Bidean egiten duen zaintza indartuko duela urrira arte, erromes-kopurua handitzen dela ikusita.

Dispositibo berezia Donejakue Bidearen ibilbide, aterpetxe eta herrietan ezarriko da, urtero Foru Komunitatean Bidea egiten duten 42.000 pertsona baino gehiago babesteko.

Dispositibo hori Nafarroako Donejakue Bidearen 2026rako Lan-egitasmo Integralaren parte da, zeina 2019ko maiatzaren 15eko Gobernu Erabakiaren errekerimenduari erantzunez egin baitzen, Donejakue Bidearen kudeaketa eta gobernantza direla-eta, Foruzaingoak urte osoan zehar Bideari ematen dion babesaren abaroen.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu:

Zeintzuk dira zaintza handiagoa izanen duten eremuak?

Zer dispositibo ezarriko da Luzaidetik Orreagara bitarteko iraganbidea indartzeko?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 13an

Foru-parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-26/PES-00143. Galdera, Jurramendi 76ri buruzko Memoriaren Tokiko paneleko testuak aldatzeko eskariari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Jurramendi 76ri buruzko Memoriaren Tokiko paneleko testuak aldatzeko eskariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan, eta Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskara Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Parlamentuak 90 pertsonak sinatutako idazki bat jaso du, non Jurramendiko 1976ko gertakarietan eraildako pertsonen omenezko monolitoaren ondoan jarritako panelaren edukia baloratzen baita. Nafarroako Gobernuak egin du panela, 1976ko maiatzaren 9an izandako gertaera tamalgarriak gogoratzen dituen Memoriaren Tokian jarritako seinaleetako bat delako.

Sinatzaileak Jurramendiko 1976ko kontzentrazioan egon ziren, edo egun horretan han egondako baina jada hilik dauden pertsonen lehen mailako senideak dira. Denek beren burua Auzitegi Nazionalak ekintza terrorista gisa kalifikatutako gertaeren biktimatzat hartzen dute. Idazkian, Nafarroako Gobernuak instalatutako informazio-panelaren testua aldatzeko eta gertakariaren errealitatera egokitzeko beharrezkoak diren zuzemenak egiteko eskatzen diete talde parlamentarioei; izan ere, testu horren egungo edukia ez dator bat Nafarroako Gobernu Zibilak 2023. urtearen hasieran argitaratutako dokumentu ofizialen arabera gertakari garrantzitsu haiek izan zuten garapenarekin eta esanahiarekin.

Idazkian honako hau adierazten da:

Azaldutako guztiaren arabera, laburbil dezakegu "Jurramendi 1976ko Memoriaren Tokia" deritzon Aniano eta Ricardori egindako omenaldi-monolitoaren ondoan jarritako informazio-panelak lehenik eta behin akatsak dituela datuetan, eta zalantzan jar daitekeela egiten duen terminologia-erabilera; izan ere:

– Adierazten du monolitoaren egungo zurezko plaka 1978koa dela, nahiz eta urte horretan beste bat jarri zen.

– 1976. urtea 1979. urtearekin nahasten du.

– "Borboi"tzat jotzen ditu buruzagi karlisten familiako kideak, nahiz eta haiek izendatzeko nazioartean erabiltzen den eta izentzat nahi duten termino zuzena, zehatza, "Borboi Parma" izan.

Estatu "ez-demokratiko" deitzen dio oposizio demokratikoak "frankistatzat" edo "frankismoaren oinordekotzat" jotzen duen Estatu bati. Estatu hori desgaituta dago, diktaduraren aurkako oposizio horren arabera, erregimena erreformatzeko prozesu bat gauzatzeko.

Baina, idazketan edo terminologian egindako "akats" horien gainera, akats historiko larria egiten du: Arias Navaroren Gobernuko hainbat erakunde libratu egiten ditu operazioaren erantzukizun nagusitik; bereziki, Gobernazio Ministerioa, Segurtasun Zuzendaritza Nagusia, Barne Politikako Zuzendaritza Nagusia, Informazio Ministerioa eta Mugimenduaren Idazkaritza/Ministerioa. Horiek guztiek, Arias Navarro presidentearen beraren mendeko SECEDeko zerbitzu sekretuekin batera, plan politiko-polizial baten prestaketan parte hartu zuten 1976ko urtarriletik aurrera, Alderdi Karlistak kontzentrazioaren gainean zuen kontrolarekin amaitzeko. Horretarako, hainbat talde eta taldexka tradizionalista erabili zituzten, zenbait urte lehenagotik karlismo militantearen diziplinatik bereizita zeudenak eta laguntzeko edo elkar hartuta jarduteko prest agertu zirenak, bai eta Italian, Argentinan eta Frantzian ekintza terroristak egiten zituzten nazioarteko ultra eta faxista ezagun zenbait ere. Horiek ez dira interpretazioak, baizik eta bai dokumentu ofizialek bai presaltanak ondo ezagutu zituzten pertsona ospetsuen testigantzak esaten eta erakusten dutena.

Horregatik guztiagatik, dokumentu hau sinatzen dugunok uste dugu aipatutako panelaren egungo idazketak eraso terrorista basati hori jasan zuten milaka lagunaren izen onaren eta memoriaren aurka egiten duela. Horregatik, Nafarroako Gobernuko Lehendakariari eta foru-erkidego honetako Parlamentua osatzen duten taldeei eskatzen diegu egin beharreko urratsak egin ditzatela panel horren egungo testua aldatu eta zuzentzeko eta hori Nafarroako Gobernu Zibilaren dokumentu ofizialen arabera den gertakarien errealiteratza egokitzeko.

Hala merezi dute, bereziki, erailak izan ziren bi lagunek eta zaurituak izan ziren hogeita hamarrek. Haien oroitzapena ezin da difamatu gertatutakoaren deskribapen faltsu bat erakutsiz. Deskribapen hori, gainera, bat dator, funtsean, pairatu zuten ekintza terroristaren arduradun nagusiek emandakoarekin. Era berean, eta arrazoi berberengatik, Administrazioako erakundeetan gertakari horiei buruz egon daitezkeen gainerako dokumentu ofizialak desklasifikatzeko eskatzen dugu, gertakariok guztiz argitze aldera.

Gobernu demokratiko bat gidatu behar duen nahitaetzko lankidetzaren eta partaidetza-espirituari erantzunez, eta aldaketa hori errazteko asmoz, zalantzan jarritako testua honela idazteko proposamena egiten dugu:

"... Aurreko urteetan bezala, Carlos Hugo Borboi Parmaren aldekoak bildu ziren, zeinak erregimenaren aurkako oposizio demokratikoaren parte baitziren. Frankismoaren oinordeko zen Arias Navaroren Gobernuko erakunde batzuek asmatu-

tako, prestatutako eta gauzatutako plan baten abaroan, Sixto Borboi Parma buru zuten talde armatu ultraeskuindar zenbaitek, beste sektore tradizionalista batzuen babes nahiz elkar-haritzearekin, bertaratuen aurka tiro egin eta Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santos hil zituzten. 1978an inauguratu zen bi biktimak omentzeko monolitoa. Gero, egungo plaka instalatu zen, idazkun hau zeukala: 'Ricardo eta Aniano. Zuen odola askatasun-hazia da (1976-05-09). Alderdi Karlista'. 2003an terrorismoaren biktimatzat aitortuak izan ziren".

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

Departamentuak baietza emanen al dio Jurramendiko 1976ko gertakariarekin zerikusia duten 90 pertsonak egindako proposamenari, hain zuzen Alderdi Karlistak bere garaian jarritako monolitoaren ondoan dagoen Memoriaren Toki aitortuan paratutako panela aldatzekoari?

Departamentuaren ustez, gaur egungoa baino egokiagoa al da panelean jartzeari begira sinatzaileek proposatutako testua, gaur egun ezagutzen diren dokumentu eta informazioen argitan?

Noiz aldatuko dira Memoriaren Tokiko azalpen-paneletako testuak?

Noren ardura da memoriaren tokietan jartzen diren paneletako testuak idaztea?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 13an

Foru-parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-26/PES-00144. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuak C eta D mailetako lanbide-karrerak direla-eta aitortutako zorra ordaintzeko aurreikusten duen egutegiari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuak C eta D mailetako lanbide-karrerak direla-eta aitortutako zorra ordaintzeko aurreikusten duen egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Osasun Zerbitzuak zer egutegi aurreikusten du C eta D mailetako lanbide-karrerari dagokion zor aitortua ordaintzeko?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 13an

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/PES-00145. Galdera, Tuterako lohien planta zentralizatuari buruzkoa**ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Tuterako lohien planta zentralizatuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintzeko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Tuterako lohi-planta zentralizatuari

buruzko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Ikusita proiektua gaur egun geldirik dagoela Nafarroako Auzitegi Nagusiari errekurtsioak aurkeztu zaizkiolarik, instalazio horietarako luzamendu bat ezartzen duen legea indarrean sartu dela eta proiektua egiteko epea 18 hilabetekoa dela:

1. Nafarroako Gobernuak noiz uste du hasi ahal izanen dela plantaren eraikuntza?

2. Planta 2028ko abenduaren 31 baino lehen amaituta egonen dela uste al duzu?

3. Europako Next Generation funtsen laguntza, IDAEk emandakoa, proiektu honetarako soilik al da, ala laguntza hori beste proiektu baterako erabil daiteke, baldin eta Tuterako lohi-planta ez bada hura jasotzeko ezarritako epean eraikitzen?

4. Nafarroako Gobernuak gogoan al du IDAEk emandako Next Generation funtsen laguntza gaitzearen posibilitatea?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-26/PES-00146. Galdera, Erriberriko paradorearen sarrerako panelari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Erriberriko paradorearen sarrerako panelari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan, eta Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Urte eta erdi igaro ondoren, Erriberriko paradorea berriro irekiko da maiatzaren 28an, behin eraikina eta haren instalazioak osorik birgaitzeko obrak bukatuta.

Sarrerako atean paradorearen berri ematen duen kartela ere berritu da, eta lehenago zeuden seinaleak kendu dira. Halatan, identifikazio-panel berri bat jarri da atearan ondoan. Bertan, "Paradoreak" identifikatzeko markaren azpiko aldean "Parador de Olite" testua jarri da, herriaren izen ofiziala ahaztuta: "Olite/Erriberri", alegia.

Euskararen Foru Legearen 8. artikulua xedatzen du Foru Komunitateko toponimoen izen ofiziala gaztelaniaz eta euskaraz izan behar dela, bertan adierazten diren arauekin bat. Artikulu horren 2. aparta-

tuak adierazten du Nafarroako Gobernuari dagokion toponimo horiek zehaztea, Euskaltzaindiak txostena egin ondoren, eta horren berri emanen zaiola Nafarroako Parlamentuari.

Hartara, Nafarroako Gobernuak, 2009ko urtarrilaren 19ko akordioaren bidez, hainbat udalerriren izen ofizialak zehaztu zituen; besteak beste, Erriberriena. Erriberriko Udalak berak eskatuta Nafarroako Gobernuak onetsitako izendapenaren arabera, gaztelaniaz Olite izatera igaro zen, eta euskaraz, berriz, Erriberri.

Hala dago jasota Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.1 b) artikuluan, non eremu mistoan "Olite/Erriberri" udalerria dagoela adierazten baita.

Paradores de Turismo de España SME SA Estatuko merkataritza-sozietate gisa eratu zen. Turismoko paradoreak Estatuaren Ondareko ondasunak dira, TURESPAÑA-Espainiako Turismo Institutuari atxikitako ondarearen parte direnak, eta horietan estatu-sozietate horrek bere merkataritza-jarduera garatzen du. Beraz, Nafarroan dagoen Estatuko Administrazioaren menpeko enpresa bat da, udal-mugartean erabilera eta izendapen ofiziala ere errespetatu behar dituen.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkeztu dira, idatziz erantzun dakien:

1. Departamentuak ba al daki Erriberriko paradorearen sarrerako panelean oker erabili dela herri horren izen ofiziala?

2. Departamentuak ba al du asmorik paradorearen titulartasuna duen enpresa publikoari paneleko izena zuzentzeko errekerimendurik egiteko, Olite/Erriberri izendapen ofiziala jaso dezan?

Iruña, 2026ko maiatzaren 14a

Foru-parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-26/PES-00147. Galdera, Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legeari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Ogasuneko kontseilari José Luis Arasti Pérez jaunari, idatziz erantzun dezan:

Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak honako hau ezartzen du zortzigarren xedapen gehigarrian:

"Arau-testuetan «minusbaliatuak» eta «minusbaliotasuna duten pertsonak» aipatzen direnean, «desgaitasuna duten pertsonak» aipatzen direla ulertuko da.

Orobat ezartzen du ezen, lege hori indarrean jartzen denetik aitzina, administrazio publikoek egindako arau-xedapenek «desgaitasuna duen pertsona» edo «desgaitasuna duten pertsonak» terminoak erabiliko dituztela pertsona horiek izendatzeko.

Hori da Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen kasua, 43.1.d artikuluan "minusbaliatu" terminoa erabiltzen baita.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten dizkizugu, idatziz erantzuteko:

- Zer aurreikuspen darabil zure departamentuak lege hau berrikusteari begira, "minusbaliatu" hitzaren erabilera aldatu ahal izateko?

- Berrikuspen hori iristen den bitartean, nola ari da bermatzen zure departamentuaren dokumentazio eta jarduketa guztietan "desgaitasuna duten pertsonak" aipatzea, 20/1992 Foru Legean erabiltzen den "minusbaliatu" terminoa aipatu nahi denean?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-26/PES-00148. Galdera, Nafarbide enpresa publikoaren zuzendari kudeatzailearen ordainsariei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarbide enpresa publikoaren zuzendari kudeatzailearen ordainsariei egindako galdera, Emilio Jiménez Román jaunak buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

VOXeko kide eta Talde Mistoko foru parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarbide enpresa publikoa-CPENi buruzko galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Nafarbide enpresa publikoko zuzendari kudeatzailearen ordainsari osoak (2024koak, orduan izendatu baitzuten, 2025ekoak eta 2026ko apirilaren 30era artekoak), ordaindutako kontzeptuen arabera, dietak barne, baldin eta halakorik egon bada.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-26/PES-00149. Galdera, Ingurumen Zuzendaritza Nagusian izandako kargu-uzte eta dimisioei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Ingurumen Zuzendaritza Nagusian izandako kargu-uzte eta dimisioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

VOXeko kide eta Talde Mistoko foru parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Ingurumen Departamentuari buruzko galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Departamentu horretan azken bost hilabeteetan izandako kargu-uzteak eta dimisioak ikusita, zeintzuk izan dira benetako arrazoiak Ingurumen Zuzendaritza Nagusian horiek gertatzeko?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-26/PES-00150. Galdera, Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusia izangaien behin betiko zerrendatik kanpo uzteari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusia izangaien behin betiko zerrendatik kanpo uzteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, hark idatziz erantzun diezaion:

Aplikatu beharreko araudiaren eta gardentasun-printzipioaren arabera, zer arrazoik justifikatzen dute Gobernuko zuzendari nagusi Miriam Martón Pérez andrea behin betiko izangai-zerrendatik baztertzea, behin-behineko zerrendan sartua izan ondoren?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 62/2026 ebazpena, maiatzaren 20koa, zeinaren bidez 11-26/PES-00107 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Nafarroako Gobernuari helarazten baitzaio idatziz erantzun dezan

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Ángel Ansa Echeagaray jaunak eskatu du Nafarroako Gobernuari eskatzeko idatziz erantzun beharreko galderari erantzun diezaion, hura erantzuteko epea igaro ondoren, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Nafarroako Gobernuak Erregelamenduko 215.1 artikulua arabera foru parlamentarietarako egintza galderei erantzuteko duen epea igaro baita, EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea 15 eguneko epean erantzun dezan Legebiltzar honen Mahaiak izapidetutako galdera, jakiteko ea Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak zergatik ez zuen aurkeztu kontratuen plangintzari buruzko dokumentazioa 2024an (11-26/PES-00107).

2. Ebazpen hau Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Ángel Ansa Echeagaray jaunari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

